BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO



II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Basauriko Udala

#### Ordenantza fiskalaren aldaketako iragarkia

Basauriko Udalaren Udalbatzak, 2024ko apirilaren 25ea egindako ohiko osoko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion honako ordenantza fiskala eta prezio publiko:

1. Etxez etxeko eta hirugarren adinekoentzako laguntza eta kultura- eta kirol-zerbitzuak emateagatiko tasak arautzen dituen 15. Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea

Erabaki hau jendaurreko jartzen da, interesaturik leudekeenak espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazio eta alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hogeita hamar laneguneko epean. Horrela aurreikusten du Toki Ogasunak arautzen dituen azaroaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluak, eta Toki Erregimena arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluak.

Adierazitako epea igarotakoan, Udalbatzak aurkeztutako erreklamazioak edo iradokizunak aztertu, eta dagozkion behin betiko erabakiak hartuko ditu. Adierazitako epe horretan ez balitz erreklamaziorik aurkeztuko, ordura arte behin-behinekoa litzatekeen erabakia behin betiko bihurtuko da

Basaurin, 2024ko maiatzaren 27an.—Alkatea, Asier Iragorri Basaguren

eek: BAO-2024a109-(II-2891)